


Rojas, guztietan azkarrena

166 partaide izan dira
Insalus sarian ▶ 4



Altuna eta Aranalde gazte ibartarrak atxilotu dituzte

FRANTZIA ▶ Montpellier-etik gertu atxilotu zituzten atzo goizean; bergarar bat ere atxilotu dute

BILKURAK ▶ Gaur bilkurak eta manifestazioak deitu dituzte Lizartzan eta Ibarra ▶ 7

XABIER LOZANO ▶
ARGIZTATZAILEA

«Mirariz topatu nintzen argiarekin»

‘Goenkale’ saioan
9 urte daramatza ▶ 2-3

Gozotegi eta jende ugari bildu da Tolosa Goxua azoka berezian

TOLOSA ▶ Herriko eta kanpoko gozogileek bere produktuak eskaini zituzten; M. Karmen Balboak irabazi zuen budin lehiaketa ▶ 6

NOELIA LATABURU



Maha-inguruko kideak. N.LATABURU

TOLOSA ▶

Udalari «erantzun sendoagoa» eskatu diote senideek

Gerontologikoaren itxieraz aritu ziren alderdi politikoak ▶ 5

LEITZA ▶

Abesbatza katalana iritsi da

Els Verdums-ongiectorria egin dio Asketak ▶ 7

ESTIVAS BONEKIN? ☎ 943 67 22 44
Santa Maria plaza, 1 ▶ TOLOSA

ASTE SANTUETAKO ORDUTEGIA

ASTELEHENA:	15:00-20:00
ASTEARTEA:	9:00-13:00 15:00-20:00
ASTEAZKENA (egun osoa irekita)	9:00-20:00
LARUNBATA (ordua eskatu)	8:00-13:00

ESPERIENTZIA DUEN PROFESIONAL BAT BEHAR DUGU LANALDI MURRIZTUAN ARITZEKO. ☎ 635 736 375

ARMA eta GIDA baimenak

- Zitarik gabe
- Zure tramitazioa azkartzen dugu
- Donostiarako joan-etorriak ekiditzen ditugu
- Etxean jasoko duzu baimena

R.P.S 401/04

‘SAN INAZIO’ MEDIKU ZENTROA
San Inazio 2 (Muñazabal Altzarien ondoan)
15:30etik 19:00etara

UZTURRETIK ▶
AGUSTIN AMIANOHementxe
biziko banintz

Atariko zakurraren katea eten beharrean luzatu da eta amonaren siesta luzatu beharrean, eten egin da zaindariaren zaunka hotsekin. Etxeko gurdiaren parean auto dotorea ageri da eta bere inguruan adinez sasoiok bikotea, amerikano piurakoa, baserrira so. Andrearen ahotik entzundako hitza ez da oso ondo ulertu, «prezioso» dela esan duen edo «prezio osoa» ordainduko lukeela desafiateraz ausartu den.

Ez dakite hauek ondo bertako bizitza zein gogorra den, gauetan ukulura zenbat bisita egin behar den, ume-minetan dagoen behiari soka eranste-ko irrikaz.

Halere amona Maria dut erruki; pottoka xaharraren saski gainean zenbat litro esne eraman ote ditu saltzera kale-ara. Zer eta, marmita eta txantxila eskuetan hartuta hiru solairu igo ondoren «ez al zenion urik nahastuko» entzuteko. Goiz osoa hara eta hona, gora eta behera madarikatzen ibili ondoren, umeentzat gozo batzuk erosi gabe ez zen inoiz etxera itzuliko. Besoak zabaldua korrika bidera ateratzen zitzaizkionean, akabo neke guztiak. Haienez eta helduentzat otordua prestatu beharra zegoen azkar, zopa geza, xerra hotza, arrosesnea lehorra eta kafea mikatza zeudela entzuteko maiz, alajaina. Ondo merezia zuen bada amonak gaurko siesta ere, handiuste horiek eteteko.

Etxean, soroan, belardian, ukuluan, basoan, nonahi molatzen zen amona Maria. Halere, denetan gordinena, bere bizitzan jasandako isolamendua izan dela uste dut. Ez zuen lagunik egiteko astirik. Etxekoneko Juxta, oster, bere solaskide bakarra, gazterik joan zen mundu honetatik. Nekeak baino gehiago, tristurak eraman zuela uste dut. Ez da harritzekoa, sorotik arriburuak garraiatu ondoren, etxean artaburu bat izaten zuen zain eta, ardoz ondo beratutakoa.

Horrela izan dela aitortzetik hasi beharko da, horrela ez lukeela behar onartzera iristeko. Eta ez gertatzekotan, guztion ahalegina izango da estimatzeakoa, gertukoena nahiz auto dotoretakoena.

XABIER LOZANO ▶ ARGIZTAPEN DISEINATZAILEA

«Mirariz topatu nintzen argiarekin, dibertigarria iruditu eta jarraitzen dut»

Argiaren munduan ari da lanean, ikuskizunak diseinatzen; «argia behar den leku guztietan» dagoela eta teknika «asko hobetu» dela adierazi dio HITZARI

JOXEMI SAIZAR

Ikuskizunen argiztapenean ari da Xabier Lozano tolosarra. Batez ere diseinatzen. Musika taldeekin, antzerki taldeekin —*Paradero desconocido*, *Ezetz lepoa jarri*, Max saria irabazi duen *Ixa*, *Ozeanoko pianistarekin* sari bat irabazi zuen Valentzian...—, Edu Murua-mendiaren Aukeran eta Jon Maiaren Kukai dantza taldeekin, film labor batzuetan, taberna eta dendetan, erakusketa handietan, indusketetan... Baina batez ere ETBn: *Jaun ta jabe*, *Duplex*, *A ze pare*, *Ertzainak* telesailak eta azken bederatzietan *Goenkale* arrakastatsuan.

Nola hasi zinen argiztapen lanetan?

Mirariz topatu nintzen argiarekin. Errealizatzaile izan behar nuen, baina argiekin laguntzen hasi nintzen eta bizitza osorako dibertigarria iruditu zitzaidan eta hor jarraitzen dut. Argiñaren programa izan zen lehenena.

Zein da zuen lana?

Argia behar den leku guztietan jartzen dugu gure hondar alea: musika, dantza, antzerkia, telebista, erakusketa handiak, tabernak, dendak, orain prentsaurrekoetarako deitzen hasi dira, Getarian indusketa arkeologiko batzuetan ari naiz... Gaur [ostegunean] lehendakariaren sari banaketa batean izan naiz.

Zein dira kakoak?

Argiaren kokapena, norabidea, intentsitatea, kolorea, mugimendua, kea... Elementu horiekin behar den giroa sortzen dugu.

Gustura gelditzen al dira?

Goenkale da lanik finkoena. Bederatzi urte daramat. Autonomoa naiz eta lan guztiak azterketa txiki bat dira. Gustura gelditzen badira errepikatzen dute. Bestela ez.

Artea ere bada zuena.

Argiarekin jendea zuk nahi duzun lekura eraman behar duzu. Komatxo arteko artea da: ez ditut nire koadroak egiten, eskatzen didatena baizik, mer-

zenario bezalakoa naiz. Bete ere saiitzen naiz gauza desberdinak eskaintzen.

Modak ere izango dira mundu honetan.

Batez ere telebistan nabaritzen da. Lehiaketa guztiak berdintsuak dira. Antzerkian ez hainbeste.

Teknika ere aurreratu egin da.

Bai, eta lehen egin ezin ziren gauzak egin daitezke orain. karamak hobeak dira, argiak ere bai... Teknika merketu egin da.

Nola prestatzen duzu zure lana?

Dena bilera batekin hasten da. Egin behar dutena jakin eta pentsatzen hasten naiz.

Musika kontzertu bat bada, adibidez?

Denbora dezente eskatzen dit.

Abestiak ikasi arte entzuten ditut. Bi hilabetetan CD hori auto-entzuten dut, ea zer iradokitzen didan. Irailean Mikel Laboaren lan bat argizatuko dut.

Gero eta diru gehiago gastatzen al da argietan?

Ez pentsa. Nahi bai, gero eta gauza handiagoak egin nahi izaten dira. Lehen berdin zitzairen. Nahi duzun guztia imaginatu dezakezu, baina aurrekontuarekin eta teknikarekin kontatu behar da. Antzerki talde guztiak behartsuak dira, berez, eta gutxi lortuko dute ezizatea. Dirua jarri behar izan dut batzuetan.

Eta dantza?

Aukera gehiago ematen ditu. Aurretik jarri beharrean, antzerkian bezala, argia alboetik jarrita bolumena ematen

diegu mugimenduei. Aurretik bakarrik txaloetarako jartzen dut argia.

Zer da zailena eta errazena?

Gauza batzuk erraz ateratzen dira eta beste batzuk ez. Batzuekin gehiago gozatzen duzu. Errazena errepikatzea da. Denetik egin dudanez, nahastea gustatzen zait: telebistako gauzak antzerkian erabiltzea, edo antzerkikoak dantzan, ikus-entzuneakoak sartu... Dena esan beharrean, dantzak intsinuatu egiten du. Zailagoa da eta hori gustatzen zait.

Nonbait sartzerakoan, argietan fijatzen al zara?

Bai, deformazio profesionala da. Lanbide guztietan gertatzen da. Film bat ikustera joan eta lehen bost minututan argian fijatzen naiz, kostatzen zait filman zentratzea.

Eta zer gustatzen zaizu gehien?

Erabateko ikuskizuna.

Bitxikeriak gertatuko zitzaizkizu.

Behin Jose Luis Morenoren programa batean 800 metro karratuko egitura metalikoa erori zen. Ez zen ezer larrikeri gertatu. Bi urte egin nituen bere programan eta beste mundu bat zen, kapitaletik probintziara etorritakoa: gaueko ordu txikietan 200 pertsona gonbidatu Nicolasa jatetxera, balletak, artistak, Egunerrieta-ko opariak...

PERTSONALA ▶

▶ Tolosan jaioa ▶ 1961ean ▶ Andoingo bideo eskolan ikasi zuen ▶ Fruta biltzen, feriak montatzen, tabernan, pintatzen... egin du lan ▶ 9 urte *Goenkale* argizatzen ▶ Hainbat antzerki, dantza, telebista eta musika ikuskizun argizatu ditu

Argiztapen onena? Circ du soleil. **Fura dels Baus?** Ona, baina errepikatu egiten dira. **Kataluniako taldeak?** Gauza ikusgarriak egiten dituzte. **Euskadunak?** Gauza xumeagoak.



DANTZA

«Dena esan beharrean, dantzak intsinuatu egiten du eta hori gustatu egiten zait; aukera gehiago ematen ditu»



JOXEMI SAIZAR

KOMIKIA ▶ GORKA SALABERRIA



Korrika pasatu da

ASTEKO IRUDIA ▶ Gaur Bilbon amaituko den Korrika 14 Tolosaldeko pasatu zen asteazkeneko ordu txikietan. Ikaztegiatik Adunaraino —argazkian— jende asko elkartu zen gauzez euskararen aldeko lasterketari bultzada emateko. Bezperan arratsaldean makina bat Korrika Txiki izan zen Tolosaldeko hainbat herritan. HITZA

Osakidetzako greba dela eta, sektore honetako ELA eta LAB sindikatuak ordezkariek iritzi eskatu du HITZAK, hitzarmenaren inguruan zer gertatzen ari den galdetuz

IRITZIA ▶ TXARO MARKINEZ (LAB-OSASUNGINTZAKO ARDURADUNA)

Lortutakoa akordio ona da

Osakidetzan 2000 urtetik ez ziren birnegoziatu lan baldintzak. 2004ean negoziazio kolektiboak hasi zen. LABek bilera batzuk izan zituen ELAekin, plataforma bateratura iristeko asmoz. Ezinezkoa izan zen sendagile eta erizaintzat bakarrik ziren hiru puntu erreibindikatibo planteatzen zituelako eta SATSE eta SMEekin ekintza batasun akordioa itxita zuelako.

Sektore mahaietan aurreratzen joan zen, baina ez nahikoa eta uztailean nego-

ziaketak hautsita gelditu ziren. Ondoren, goardien gatazkarengatik, negoziaketak berriro ireki ziren. Osakidetzak bere eskaintzak hobetu zituen eta ELAK, SATSEK eta SMEk aldizkako greba deitu zuten 10 puntuko plataformarekin, horietako hiru sendagile eta erizaintzako erreibindikatibok izanik. Sektore publikoan lan egiteagatik bakarrik sendagileek kobratzen duten osagarri bat da eta SATSE, SME eta ELAK denei ordaintzea eskatzen dute, sektore pribatuan lan egin edo ez.

Otsailaren 23an Osakidetzak behin-behiko eskaintza eman zuen, erreibindikatiboko sindikal gehienak jasoz. Grebaren deitzaileek, erreibindikatiboko gehienak jasotzen zirela ikusita, mezua aldatu zuen, kalitate defendatzen dutela esanez.

LABek sinatzea erabaki du modu arduratsuan. Ezegonkortasuna murriztu egiten da, 3.000 plazako OPE, pertsonalaren aintzinasuna, pertsonal laborarentzako errelebo kontratua, hiru txandatan lan egiten duen 55 urtetik gorako langileen-

tzat lanaldiaren murrizketa, kategoria guztiaren ospitalizazio osagarriak... Akordio ona da, sinatu eta handik bi egunera ELAK errelebo kontratoaz hilaren 23an sinatutakoa aplikatzea eskatu zuen idatziz Basurtoko ospitalean. Astero hobekuntza bat aplikatzea eskatuko al du?

Grebaren erantzuna ez da ona izaten ari, alderantziz, langileek otsailaren 23an sinatutako akordioa ona dela onartzen dute. Honek hausnarketarako tarte eman behar dio ELAri, bidaikide korporatibistak bilatu dituen klaseko sindikatua. Bere afiliatuak eta, are gehiago, bere delegatu batzuk ez dira greba jarraitzen ari.

IRITZIA ▶ MAITE SANZ (ELA-OSASUNGINTZAKO ARDURADUNA)

Langileen arazoak ez ditu konpondu

Otsailaren 23an LABek, CCOOK eta UGTk Osakidetzako langileen aurkako akordioa sinatu zuten Osakidetzarekin. Hiru sindikatu horiek %23ko ordezkaritza dute, negoziazio mahaietan egoteko gutxiengoak ez dute, legeak behartuta joan ziren mahaira —Espainiar ordezkaritza handien duten sindikatuak izateagatik—. Aurrean %78,61 zuten: ELA (%44), SATSE (%19,11) eta SME (%15,5).

Paradoxikoki, Espainiako legegaiaren aurkako errebelia defendatzen duen, euskal gehiengoaren errespetoa erreibindikatzen duen eta inposaketaren aurka borrokatzen duela esan duen LAB sindikatua Osakidetzaren operazioari babes emateko garaian apuntatzen da. Osakidetzak bere langilegoaren negoziaketa kolektiboaren eskubidea zanpatzen du eta Espainiako legislazioa aplikatzen du modu bere aldetik bakarrik EAeko osa-

siungintza publikoan lan egiten duen pertsonal guztiaren lan baldintzen edukia erabakitzeko.

Unilateral esaten dugu LABen eta beste bi sindikatuen ekarpenak Osakidetzak kaltetatutako langile gehienek borondatearen aurka hartutako erabakia makilatzeko bakarrik balio izan duelako.

Historia pixka bat eginez, mobilizazioen hasieran ELAn, klaseko sindikatu gisa eta kasu honetan, diagnostikoa bi planotan egin genuen: langile guztien lan baldintzei buruzkoa eta euskal gizarte osoari inposatu nahi zaion osasun eredu.

Bi alorretan, arduradun politikoez ez diote lehenetsua ematen osasun zerbitzuaren kalitateari, gaixoa bezero bezala hartzen dute eta sektoreko langileen giza ekarpena oso kontsiderazio eskasean hartzen dute. Aurrekontuan euskal osasun publikoari ematen zaion dedikazioa

murriztea balore handia da arduradun politikoen artean.

Aukera horien ondorioak praktikan ezagutzen dugu ohe eskasia, osasun mentalerako azpiegitura ez nahikoa, eguneko zentro gutxi, arreta geriatriko eskasa, betetzen ez diren beharrak (odontologia, zahartzaroarekin erlazioz atutako gaixotasunak...), lehen arreta eta espezializatuaren arteko koordinazio falta, kirofanoen erabilpen eskasa, eskanerra, itxaron zerrenda luzeak, gutxi motibatutako pertsonala, plantila eskasa, interinertate abusoak, konexio arriskutsuak asistentzia pribatuarekin (zentro kontzertuetara bideratzea...). Hori Osakidetzak langileei inposatu dien negoziaketa kolektiboko politika zoritzarrekota erantsi behar diogu, 2000 urtetik komeniorik gabe edukiz.

Diagnostiko honekin bat, eta urte eta erdir, ELAK negoziazio mahaiko sindikatu

ordezkariekin lan egin du indarrak batzeko. LABek bere tokia zuten lan honetan, baina uko egin zion.

Goardia medikoen prezioa igotzearen truke (eztabaidan eta problematikan sarkoindu nahi izan gabe) LABek uko egin dio gainontzeko pertsonal ez medikoarentzat CCOOK eta UGTk Eusko Jaurlaritzarekin hitzartutako %3ko soldata igoerari eta ehun eta piko lan batzorderen sorrerari hurrengo zortzi hilabetetan, hitzarmena urtebeterako adostu baita.

Honen ondorioz, hitzarmen honen sinadurak langileen arazoak ez dituela konpondu begibistakoa da. Euskadiko osasun publikoaren hobekuntzari konponbidea ere ez zaio eman eta horregatik ELA, SATSE eta SME sindikatuok (ordezkaritzaren %78,61) mobilizazioekin jarraitzeko motibo asko dugu, ez bakarrik lan baldintzak hobetzeko, baizik eta osasun sistema publiko baten alde. Helburu horrekin osasun sektorearen greba orokorrera iritsiko gara apirilaren 8an.

LIZARTZA ▶ TXIRRINDULARITZA

Jose Joaquin Rojas izan da indartsuena XVII. Insalus Sarian

Aramendia izan zen bigarren eta Garcia hirugarren, irabazlearekin 60 kilometroko ihesaldia burutu ondoren



Aramendia, Rojas eta Garcia izan ziren protagonista lasterketa erdia ihes eginda pasatu ondoren. I.ASENSIO

IÑIGO ASENSIO

Jose Joaquin Rojas, Liberty-Wurth taldeko txirrindulari murtziarra izan zen Lizartzako XVII. Insalus Sariko garailea. 60 kilometroko ihesaldi baten ostean, bere ihesaldi lagunak, Aramendia (Caja Rural) eta Garcia (Liberty-Wurth), garaitu zituen Rojasek esprintean, bere taldekide Garciaren lana-

ri amaiera bikaina emanaz. Hiru txirrindulariek Altzoko lehen igoera aprobetxatu zuten tropela atzean uzteko, eta horrela, 47. kilometrorako 50 segundoko aldea lortu zuten. Egoera ikusirik, Alfus-Tedes taldeak bere gizon guztiak jarri zituen lanean baina Altzoko bigarren igoerara iristean iheslariak indartsuago zeudela erabaki zuten eta horrela beren

tartea mantentzea lortu zuten. Leaburuko igoera arte. Hau izan zen hain zuzen ere trope-lak ihesaldia gertuen izan zuten puntua, baina adostasun faltak edota indar gabeziak aukera berria eskaini zion iheslariari eta lasterketa buruko hirukoteak gogoz egin zuten lana helmugaraino tarte mantentzeko. Azkenean, Egoitz Garcia bizkaitarrak, bere taldekidearen

SAILKAPENA ▶

XVII. INSALUS SARIA

1. Jose Joaquin Rojas (Liberty-Wurth)
2. Francisco Aramendia (Caja Rural)
3. Egoitz Garcia (Liberty-Wurth)
4. Jose Antonio Baños (Liberty-W.)
5. Maximo Cuesta (Alfus-Tedes)

Mendiko Saria

Egoitz Garcia

Taldekatiko Saria

Liberty-Wurth

alde eginko lanaren ondorioak jasan zituen eta ez zuen esprintean lehiatzeko indarririk izan. Rojasek, berriz, ondo aprobetxatu zuen Garciaren lana eta arazorik gabe hartu zion aurre Aramendiari. Mendiko saria Egoitz Garciak eraman zuen eta taldea Liberty-Wurth-en nagusitasuna nabarmena izan zen.

Rojas, profesional bidean

Lasteketaren ondoren, azken kilometroak «benetan gogorrak» izan zirela zioen irabazleak. Hala ere, kanpotik ikusita, Rojasek lasterketa osoa nahi bezala kontrolatu duenaren impresioa ematen zuen. Zuhurtziak jokatu arren, erreleboetan gehiegi gordetzen ez den horietakoa da, eta ez zuen arazorik izan 60 kilometro faltan eraso egin eta garaipenaren bila joateko. Bere bigarren urtea du afizionatuetan eta Lehendakari Txapelketako lehen postuetara hurbilduko da Lizartzan lortutakoarekin. Dena den, garaipenek ez lukete larritu beharko Liberty-Wurth taldeko txirrindulari gaztea, izan ere, mundu profesionaletik oso gertu dago. Liberty talde profesionaleko zuzendariak, Manolo Saizek, denboraldi erdialderako bere taldean nahi zuela aipatu zuen duela aste batzuk, eta emaitzak ikusirik, ez litzateke harriztekoa izango bere hitza betetzea.

Jende ugari eta eguraldi onarekin agurtu zuten Otsabio kirol elkarteak antolatzeileek atzoko eguna.

TOLOSA ▶

Tolosaren gol festa atzo Berazubín Urolaren aurka

Urdinak 6 eta 0 nagusitu ziren talde «oso makal» baten aurrean

NOELIA LATABURU

Tolosak 6 eta 0 irabazi zion atzo Urola taldeari, bere joku onaren erakustaldia egin ondoren. Norgehiagokaren hasieratik aukerarik gabe utzi zuten aurkaria etxekoek. Lehen bi golak Lasaren esku ailegatu ziren, 18 eta 27. minutetan. Hirugarrena ere lehen zatian sartu zuen Oruek. Hiru goleko aldearekin iritsi ziren atsedenaldira.

Bigarren zatiak lehenengoaren bidea hartu zuen Blancok 10 minutuetara 4. gola egin zuenean, Urolakoen etsipenerako. Zuloagak, 61. minutuan, urdinen bosgarrena egin zuen eta arratsalde borobiltzeko Oruek bere bigarren gola egin zuen eta sei eta hutsekoa gehitu zuen azken markagailura.

Norgehiagoka zailtasunik gabe irabazi zuen Tolosak aurrez aurre «oso talde makalarekin» egin baitzuten topo. Garaipen honi esker, Tolosak lidergoa mantentzen du eta gaurko Ordizia eta EHU taldeek jokatu dituzten partiden erantzunen zain geratuko dira. Hurrengo asteburuan atsedendaldia izango dute Luluagaren mutilek, datorren partidaren Ordizia aurkari zuzenaren zelaia bisitatuko dutelarik. Hauek izan ziren atzoko norgehiagokan aritu ziren Tolosako jokalariek: Apezetxea, Lacalle, Unai, Jon, Romero, Artola (Errazti), Orue (Doiartzabal), Elola, Lasa (Prados), Regillaga (Aranguren) eta Blanco (Zuloaga).

hitza

txokoa^{lagunen}

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ HITZARI 42 euroko diru laguntza ematen dioten harpidedunek HITZA egunero jasotzeaz gain **ABANTAILA EZBERDINAK** izango dituzte; harpidedunen txartela izango dute eta, besteak beste, HITZAK egiten dituen zozketetan parte hartzeko aukera izango dute.

▶ HITZAren laguntzaile izan nahi baduzu, deitu **943 30 43 46** telefono zenbakira.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

GERONTOLOGIKOA ▶

«Erantzun sendoagoa» eskatu dute

Udalari neurri «gogorrakoak» eskatu dizkiote senideek eta plataformak, zentroaren itxiera «onartezina» delako

JOXEMI SAIZAR

Zentro Gerontologikoaren itxieraz mahai-ingurua izan zen herenegun iluntzean udal-letxean, itxieraren aurkako plataformak antolatuta. Herriko sei alderdi politikoen ordezkari hauek izan ziren partaide: EBko Jose Mari Vieites, EAko Onintza Lasa, EAJk Jokin Bildarratz, Tolosa Bizirik-eko Antton Izagirre, PSE-EEko Oscar Renedo eta PPko Angel Yañez. Aretoa jendez bete zen, batez ere adineko jendea zegoen.

Hasieran itxieraren inguruko bideo bat eman zuten, zentroan bizi ziren adinekoak, senitartekoak, langileak eta plataformako kideen iritziak jasoz.

Plataformak Gipuzkoako gizarte zerbitzuen maparen datu nagusiak eman zituen ezagutzera. Aldundiak udalekin prestatutako txosten horretan plaza gehiago sortzea aurreikusten da. («ez murriztea»). Gerontologikoa itxia 64 plaza eta lurraemendiko berritze lanekin 16 plaza gutxiago izango direla kontuan izanda, Tolosaldeak 82 plaza galtzen dituela esan zuten, («dituen %30a»). Maparen eskaintza «egokia» iruditzen zaie, («baina zenbakiak Gerontologikoa itxi gabe ateratzen dira»).

Ekitaldi osoak hiru ordu iraun zuela kontuan izanda, hona hemen, oso labur, ordezkari bakoitzak esandako garrantzitsuena:

JOSE MARI VIEITES

EB-U

«Ahal dudan neurrian erantzun dut»

«Itxieraren berri ez genuen izan publiko egin arte. Batzar Nagusietan Esther Larrañagarekin elkarriketa eskatu, baina ez zigun kasorik egin. Mobilizazioetan parte hartu dut eta jarraituko dut. Etxe tutelatuaren politika ez dut konpartitzen, eskaerarik ez dago. Aldundia zerbitzua pribatizatzen ari da. Bilerak hau konstruktiboa izatea eskatu duzue, baina ez da hala izan batzuen aldetik. Udalaren kompetentzia balitz, kargua utziko nuke. Ez dut prezio politikoa ordaindu. Ahal dudan neurrian erantzun dut, nahi nuke EBk hau gidatzea. Manifestazio bat egin dezakegu Donostian».

ONINTZA LASA

EA

«Arartekoarekin bi aldiz bildu naiz gai honetaz»

«Ahobatez onartu dugu mozioa udalbatzarrean. Langileekin eta senideekin bildu gara. Arartekoarekin bi aldiz izan naiz, gai honetan mimo berezia izatea eskatuz. Erabaki gogorra da, ez dugu konpartitzen. Horregatik izan gara beti manifestazioetan. Zerbitzuak mantentzeko egingo dugu lan».

JOKIN BILDARRATZ

EAJ

«Denak Tolosan gelditzea lortu dugu»

«Abenduaren 27an eman zidan Esther Larrañagak bere apustu pertsonalaren berri. Ez zela posible erantzun nion. Erabakia berraztertzea eskatu genion. Gobernu Batzordetik, beste alderdiekin, senideekin eta langileekin hitz eginda, baina ezezkoa jaso genuen. Elkarriketa berreskuratu eta denak Tolosan gelditzen saiatu ginen eta lortu dugu. Donostian baino hobeto daude. Martxoaren 31n Aldundiak Gerontologikoa utziko du eta Udalak bere konpetentziak asumituko ditu. Taberna, podologia, ileapaindegia eta masajearen arduradunekin hitz egin dugu eta lehengo baldintzetan jarraituko dute lanean. Iturriza elkartearekin ere berdin izatea espero dugu. Gizarte zerbitzuen mapa ez da betetze. 2010rako aurreikusita zegoen egoera 2007rako lortu nahi dugu. Aldundiaren kontra atera gara publikoki. Eskaez gain, lan eta proposamen gehiago egin ditugu».

ANTTON IZAGIRRE

TOLOSA BIZIRIK

«Gidaritza faltatu zaio Udalari»

«Informazioa langileen aldetik jaso dugu, ez Udaletik. Udal gobernuan ginenean zentro eredu zela esan ziguten Aldundiak arduradunek. Obrak egin behar ziren. Handitzeako ondoko egoitza —euskaltegikoa— eskaini genien. Erabaki antisozial honen aurka egiteko gida-



Mahai-inguruko partaideak herenegun udaldebeko batzar aretoan. NOELIA LABURU

ritza faltatu zaio Udalari. Onartezina da itxiera. Vieites: zure ardura ez da manifestaziora jotzen bukatzen, gizarte batzordeburua zara, negoziaketetan ez duzu parte hartu, jarrera sendoagoak behar dira, zure dimisioa udal gobernu taldean falta da. Bildarratz: Aldundia eta zu bat zatozte makilajea, 'akordiorik onena' dela diozue, zentro bat itxi dute, oso larria da, onartezina, ez zenuen utzi behar, alderdiko karneta mahai gainean utzi behar zenuke, Eibarko zentroa ez dute itxi hango alkate sozialistak ez duelako utzi. Plaza horiek defendatu behar ditugu. Ondoan kultur zentroa egiten milioiak gastatuko dituzte eta gerontologikoa itxia. Giza-kultur zentro bat egin behar da, nahiz eta hainbeste plaza ez izan, adinekoak ez dira ghetto batean utzi behar, herrian integratuta sentitu behar dira. Aldundiarekin herri bezala negoziatu behar da, ez alderdi bezala.»

OSCAR RENEDO

PSE-EE

«Egin diren ekintzak bultzatu ditugu»

«Langileen bidez zurrumuruak entzun ondoren, gure alderdiko diputatuaren bidez Larrañagarekin egoten saiatu ginen, baina ez genuen lortu. Itxieraren aurkako mozioa onartu genuen ahobatez. Egin diren ekintzak bultzatu ditugu. Tolosatik ez dute atera behar. Langileen egoeratik kezkatuta gaude. Zerbitzuak mantendu behar dira egoitzan».

ANGEL YAÑEZ

PP

«Egoitzan itxialdia egin behar da, prest nago»

«Batzar Nagusietan dugun ordezkaria —tolosarra eta sendagilea gainera— manipulatu sentitu da. Zentroa mantentzeko interes berezia daukat: adinez gertuena nago eta ama eta anaia horrelako zentro bategan hil ziren. Orain dena zenbakietan eta pezetatan zentratzen da. Gestioa txarra izan bada, akatsak zuzendu behar dira, ez itxi. Egoitzan bertan itxialdia egitea proposatzen dut, ni prest nago. Igerilekua erdialdean egon behar duen bezala, adinekoen zentroa ere bai».

ENTZULEAK

«Defentsarik gabe sentitu gara»

Bukaeran entzule askok hartu

zuten parte. Batek udan ohe guztiekin Aldundiaren aurrean jartzea proposatu zuela esan zuten.

Aralar alderdiko Batzar Nagusietako ordezkariaren gizar-te gaitako aholkulariak Aldundia zerbitzuak pribatizatzen ari dela esan zuten, itxieraren aurka Aralar eta EB bakarrak agertu zirela gogortu zuten, EAJ, EA, PSE-EE eta PP alde bozkatuz, eta soldata al-tuegiak zirela («gezurra») dela.

Plataformako kide batek «defentsarik gabe» sentitzen dela eta jarrera positiboarekin konponbideak bilatu behar direla esan zuten.

Senide batek Udaletik «tratu lotsagarria» jaso dutela azaldu zuten.

Plataformako beste kide batek itxiera atzeraezina ez dela esan zuten. Udalak eta Aldundiak «batzokian trapitxeatu» dutela akordioa eta beharreaudenean «lotsarik baduzue» Donostiara joateko esan zuten udal ordezkariak.

T O L A R G I

Tolosako argia. Zurea
La luz de Tolosa. Tu luz

Pablo Gorosabel kalea, 34 B. • TOLOSA
Tel. 943 65 00 16 • Faxa: 943 65 00 65
Telf., matxurak: 610 44 00 88
E-posta: tolargi@tolargi.com
www.tolargi.com

AZOKA ▶

Azoka egun
arrakastatsua,
Tolosa Goxua
dela-eta

Lehenengo geranioak, gineako alegriak, zineraria eta erramuak izan ziren

PABLO ALBERDI

Atzoko azoka eguna arrakastatsua izan zen. Tolosa goxua azoka bereziak bisitari ugari erakarri zituen, eta eguraldi onaz lagunduta, giro polita sortu zuten. Eskaintzan ere nabaritu zen eguraldi onaren eragina. Berrikuntza dezente izan ziren, eta neguko barazkien berpiztea nabaritu genuen.

Apaingarriko landare berri asko izan ziren. Aurtengo lehenengo geranioak, Gineako alegriak, zineraria, eta erramuak izan ziren.

Zuhaitzen zerrenda ere oso zabala izan zen atzo. Aurtengo asko luzatzen ari da produktu hauen eskaintza, hoztak eta izotzak horrela nahi izan duelako. Beste urtetan baino beranduago iritsi gera landatzeko garaiara, eta horrek eskaintza mantentzealagunduko egin du

ATZOKO AZOKA ▶

Landareak	merk.	gares.
Begonia	1	1,3
Gineako alegria	3,4	-
Zineraria	6,5	-
Geranio arrunta	1,9	-
Geranio huntza	1,9	-

Berdura plaza

Haritzak	0,6	1
Pinua	0,18	-
Douglas abetoa	0,24	-
Lausoniana	0,60	-
Intxaurrondoa	4	-
Pago gorria	2	-

Bertako produktuak

Porruak	1	6
Azenarioak	1	5
Baratzuri berriak	1	-
Barraskiloak	6	-
Ardi gazta	12	21
Behi gazta	7	9

TOLOSA GOXUA AZOKA ▶

Tolosako mamian, gozo-gozo

IX. Tolosa Goxua azokak jende andana bildu zuen goiz guztian zehar; herriko eta kanpoko 15 gozotegik euren produktuak aurkeztu zituzten jendaurrean



Mota eta zapore guztietako gozoak dastatzeko aukera izan zen atzo Goxua Azokan. NOELIA LATABURU

NOELIA LATABURU

Inoiz baino gozoago topatu genuen Tolosa atzokoan. Txokolate beltza, txokolate zuria, trufak, frutazko pastelak, opilak, euskal pastela... hamaika aukera ahogozo guztien gozagarrirako. Trianguloan barreiatu zen gozo usainak ezinbestez erakarri zituen ehunka lagun hango postuetaraino. «Jendea lotsatu egiten da eskaintzen direnak hartzerakoan», aitortzen zuten goizean goiz saltzaileek. Aitzitik, eguzkiak gogorrago jo ahala, bertaratutakoek lotsak eta bestelakoak galdu zituzten; 12:00ak aldera gerturatu zen jende gehiena eta ordun igo ziren salmentak postuetan. «Poliki-poliki hasi da eguna, baina eguerdi aldera hobetu egin da», esaten zuten gozotegietakoek.

Guztira hamabost gozotegik ezarri zuten bere postua Tolosa Goxua azokan, herrikoak, Bizkaikoak, Arabakoak eta

‘Erraustegiari ez’ salaketa

Salaketen gunea ere izan zen Trianguloan. Onddolar herri mugimenduak Donostiako eta Txingudiko erraustegien aurkako sinadurak biltzen aritu ziren goiz guztian zehar, eta euren mahaiaren ondoan bost metroko tximinia eraiki zuten. Honekin batera erraustegien kalteen berri ematen zuten informazioa banatu zuten jendartean. Halaber, Tolosaldeak jasango litzuzkeen ondorioen berri eman zuten. ◀

Iparraldekoak, esaterako eta eskaintza guztien artean opa-roena euskal pastela izan zen: kremaduna, txokolateduna, marrubiduna... Zapore orotari-koa, baina festako erregea azken batean.

Bestelako postuak ere finkatu zituzten Trianguloan Tolosa Goxua azoka zela eta, besteak



Sinadurak biltzen. N. LATABURU

beste, Peñascalekoek antolatu zuten tailerra. Fundazioko sukaldaritza ikasleek ikuskizun bikaina eskaini zuten, lapikoen artean, jendaurrean txokolatetzko gailetak, opilak eta beste zenbait gozoki prestatu baitzituzten. Ez zuten, baina, denbora luzez irauhan hauek mahai gainean, begiluzeez ikusi ez ezik,

ARRAUTZ BUDIN
LEHIAKETA ▶

Eva Argiñano dastaketan. N.L.

IRABAZLEAK

Lehen saria. Mari Karmen Balboa tolosarrak eskuratu zuen, 150 euroko eta opari bateko sariarekin.

Bigarren saria. Esther Peña Tavaresentzat izan zen eta 120 euro eta oparia bat eraman zituen eberra.

dastatu ere dastatu baitzituzten Peñascalekoen produktuak.

Adituenen epaia

Arrautza budin lehiaketarako, berriz, ohorezko epaimahaia izan zen. Ordubetez lehiaketan parte hartu zuten hamabost partaideren flanak dastatu zituzten Eva Argiñanok, Lurdes Rekondok eta Jose Mari Gorrotxategiak.

«Oso maila altua lortu dute denek, eta oso zaila jarri digute erabakia hartzeko», aitortu zuen Jose Mari Gorrotxategi tolosarrak, irabazleen izenak jakitera eman ondoren. Mari Karmen Balboa eta Esther Peñasarentzat izan ziren lehen bisariak, hurrenez hurren, eta Jokin Bildarratz Tolosako alkatea eta Josemi Gomez Elosegi Tolosako Garapen ekonomiko, turismo eta enpleguko zinegotzia arduratu ziren sari bana-keta honetaz.

iragarki laburrak ▶

Peoiak. Plaza libreak Hernani, Arrasate, Araman, Errenteria, Antzuola, Zerain, Mendaro eta Villabonan. 943 65 01 93.
Sukaldari laguntzaileak, sukaldariak, zerbitzariak. Plaza

libreak: ikastetxeak, egoitzak, Eusko Jaurlaritza. Informatu. 943 65 01 93
Ostalaritza. Sukaldari laguntzaileak, sukaldariak, zerbitzariak. Plaza libreak: eskolak, egoitzak, Eusko Jaurlaritza. 943 65 01 93 telefona.

Eraikuntza. Igeltseroak, peoiak. Plaza finkoak Gipuzkoako udaletan Informazioa doan. 943 65 01 93.
Haur Hezkuntza. 106 plaza gaztelaniz, 52 euskaraz. Informazioa doan. 943 65 01 93.

Mantenua. Elektrikariak, iturginak, soldatzaileak, arotzak... Plaza libreak: erakunde publikoak. 943 65 01 93.
Gidariak. Plaza libreak: udalak, Eusko Jaurlaritza, Aldundia. Informazioa doan. 943 65 01 93.

Administrazio laguntzaileak. Laster sarrerak udal hauetan: Hernani, Usurbil, Irun, Beasain, Altzo, Bergara, Zorrales, Mutriku, Zizurkil, Mendaro, Añoeta. Informazioa doan 943 65 01 93.



Els Verdums abesbatzari ongietorria egin diote

LEITZA ▶ Iragarritako ordua baino beranduxeago, baina eguerdian aillatu ziren Igualadatik (Katalunia) Els Verdums abesbatzako lagunak herrira. Udaletxean ongietorria egin eta bazkalondan, jada asteburu aberats honetako agendari ekin zioten buru-belarri, bertako ohitura, kultura eta txokoak ezagutuz eta lagun berriak eginez. Gaur 12:00etan dute ematekoa, elizan, Asketa Txiki abesbatzarekin, kontzertua. J. ASTIBIA



Baraualdian, EPPK-aren gose grebarekin bateratuz

IBARRA ▶ Ostiralean hasita, baraualdia egiten ari dira 18 lagun udaletxean, EPPKa egiten ari den gose grebari atxikimena azalduz eta euren eskakizun eta aldarrikapenekin bat eginez. Atzo goizean zehar orri-banaketa egin zuten herrian. Era berean, hantxe jakin izan zuten, atzo gertatu ziren beste bi herritarren atxiloteten berri ere, eta beren kezka agertu zuten atxilotuekiko. Baraualdia gaurko 19:30eko manifestazioarekin amaituko da. J. A.

IBARRA ▶ GIZARTEA

Altuna eta Aranalde ibartar gazteak atxilotu dituzte

Aretaleanizbeaskoa bergararra dago ere; senideek ez dakite non dauden

JAIONE ASTIBIA

Atzo goizaldeko 06:15ak alde-
ra eta Frantzia eta Espainiako
poliziek elkarrekin egindako
operazio baten barruan, beste
hiru euskal herritar atxilotu
zituzten, Le Cap d' Adge, Montpe-
llier ondoan (Frantzia) dagoen
herriko etxebizitza batean. Bi
Ibarrakoak dira: Aimar Altuna
Ijuro, 29 urtekoa —Lizartzan
du bere etxea—, eta Maite Ara-
nalde Ijuro, 23koa. Hirugarre-
na, Iñaki Aretaleanizbeaskoa
Telleria bergararra da.

Gertaeraren berri jakin be-
zain laister, gazte hauen seni-
deak abokatuekin harreman-
tan jarri eta euren egoeraren
berri zuzenean («jakiteko beha-
rrez», arratsalde partean,
Montpellier aldera abiatu zi-
ren. Bertan geratutako senide-
ek adierazi zuten, atxilotuek
«inkomunikazio egoera» zuten
ezarrita, eta «beren egoeraren
berri eta non zeuden ere ziur-
tasunez jakin ez arren», harun-
tza abiatu ziren, uestez behinik
behin, «inkomunikazioak irau-
ten duen lau egunetatik hiru-
garrenean, atxilotuek beren
abokatuarekin egoteko aukera



Presaka egin behar izan zuten elkarretaratzea Ibarren. J. ASTIBIA

izanen dutelakoan», zioten,
Frantziar Estatuko legediak
hala diola-eta.

Horren harira, atxilotuen he-
rrietan bilkurak egin zituzten
atzo iluntzean bertan. Horrela,
Lizartzan, 70-80 laguneko giza-
katea egin zuten eta gaur

13:00etarako, udalbatzarra
deitu dute. Ondoren manifes-
taldia egingen dute. Atxilotuta
jarraitzen duten bitartean, be-
rriz, eguneroko, 20:00etan bilku-
rak egingen dituzte, «dagoen in-
formazioa hedatzeko».

Ibarren ere, herriko plazan

hainbat eta hainbat herritar
bildu zen atxilotutako herrita-
rren berri jakiteko asmoz, dei-
tuta zeuden batzarrean eta on-
dorengo manifestazioan parte
hartzera. Baina, ekitaldia has-
tear zela, Ertzaintzako patruila
bat azaldu zen sakabanaketa-
rako gaiekin eta kameraz horni-
tuta, horrelako ekitaldirik
ezin zitekeela plazan egin esa-
nez eta bertan behera uzteko
aginduz, tentsio uneak eragi-
nez. Azkenik, «bost minutuko
baimenarekin», elkarretara-
tuek informazioa jaso ahal izan
zuten eta «biharko [gaurkoaz]
19:30ean egingen den manifes-
taziorako» deia egin. Bestalde,
astelehenean «presazko udal-
batzarra egiteko eskaria» sar-
tuko dutela eman zuten jakite-
ra eta «egiten diren deialdietan
parte hartzeko» eskatu zieten
herritarrei.

Martxoaren 19tik apirilaren 3ra
OPORRENGATIK
ITXITA
Eskerrik asko
eta barkatu eragozpenak
IRUÑA JATETXEA

Lardi auzoa, Zubi txiki industr.
20150 ADUNA
Tel. 943 69 68 64
Faxa: 943 69 68 47

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIAK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoeta-Alkiza-Hernialde.
Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. Medikua:
68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarraldea. Osasun etx.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.
▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
▶ San Esteban: 00 68 00
▶ Gernikako arbola: 00 69 00
▶ Amaro zko dispen.: 67 26 37
▶ Asunzion klinika 67 57 99 -
67 53 90 (larrialdiak)
▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
▶ DYA: 67 25 36
▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
▶ Ertzaintza: 53 88 20
Villabona-Aiztondo.
Anbulatorioa: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRIAOK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
▶ Taxia: 67 04 20
▶ Taxia (Leitza): 608 873016

KOMUNIKABIDEAK

▶ Galtzaundi: 65 50 04
▶ Aiurri aldizkaria: 30 07 32
▶ Ttipi ttapa ald.: 948 631888

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Azpiroz, M.L. Amaro z 9
(Tolosa). 943 675 118
Plaza, M. Elbarren 36 (Leitza).
112
Bihar. Olarreaga, J. M.J. Iraola
10 (Tolosa). 943 672 438
Plaza, M. Elbarren 36 (Leitza).
112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
tolosaldean_publici@tolosaldeko
hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 -
687 41 00 33.
tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aizt. 687 41 00 22.
villabona-aiztondo@tolosaldeko
hitza.info
Anoetaleda. 687 41 00 22
anoetaleda@tolosaldeko-hitza.info
Ibarraldea. 687 41 00 32.
ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
alegaldea@tolosaldeko-hitza.info
Leitzalde. 687 41 01 18.
leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

ALOKAIRUAN

Leitza. Oialde taberna alokatzen
da. Jatetxea aparte alokatzeko
aukera. Interesatuak deitu
948 510 213ra.

